


HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA
PORTFOLIO EUROPEO DE LAS LENGUAS

HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA
PORTFOLIO EUROPEO DE LAS LENGUAS
EUROPEAN LANGUAGE PORTFOLIO
PORTFOLIO EUROPÉEN DES LANGUES

EUROPEAN LANGUAGE PORTFOLIO

PORTFOLIO EUROPÉEN DES LANGUES



Hizkuntzen Portfolio Europarra

Hizkuntzen Portfolio Europarra hizkuntzen ikaskuntza bultzatzeko eta laguntzeko egina dago. Bere xedea hau da: hizkuntzaren bat ikasten ari zaren horri laguntzea zure ikasketa hori hobetzen eta ongi bideratzen, bai ikastaroren bat egiten ari bazara eta bai bakarka ikasten ari bazara ere. Era berean, hizkuntzez eta kulturez dituzun ezagutzak besteri erakusteko balioko dizu. Portfolioan deskribatzen diren gaitasun-mailak Europako Kontseiluak landutako Erreferentzia Markoan oinarriturik daude.

Zeu zara Portfolio honen jabea. Helduaroan zehar erabil dezakezu tresna hau, ikasgelan edo ikasgelatik kanpora, ikasi duzunaren erakusgarri. Beste erakunde batek argitaratutako Portfolioren bat lehendik badin baduzu, erabiltzen jarrai dezakezu. Era berean, EQUALSeko partaide ez diren ikastegietan ere erabiltzen jarrai dezakezu.

Hizkuntzen Portfolio Europarrak hiru zati ditu: Hizkuntzen Pasaportea, Hizkuntza-Biografia eta Dosiera. Zati bakoitzean dituzu erabiltzeko argibideak.

1.- HIZKUNTZEN PASAPORTEA

Hizkuntzetan dituzun esperientziak eta trebetasunak jasotzeko bilduma laburra da, aldian-aldian eguneratu beharrekoa. Zure ziurtagiri eta diplomen berri jaso dezakezu bertan, baita autoebaluazioa egin ere.

2.- HIZKUNTZA-BIOGRAFIA

Hizkuntza ikasten egin duzun ibilbidearen erregistroa duzu. Zure helburuak zehazten lagunduko dizu, eta izan dituzun hizkuntza-esperientziez eta kulturarteko esperientziez gogoeta egiten.

3.- DOSIERRA

Zure ziurtagiriak eta diplomak, edota zuk egindako lanen aukeraketa bil ditzakezu hemen, zure hizkuntza-trebetasunak eta esperientziak erakusteko.

Hizkuntzen Portfolio Europarraren gaineko argibide gehiago nahi badituzu, edota gaitasun-mailei buruzko informazio gehiago, hainbat hizkuntzatan, Europako Kontseiluko Internet-gunera jo dezakezu: <http://www.coe.int>

ESKER ONA

Hizkuntzen Portfolio Europarraren bertsio hau EAQUALS eta ALTE erakundeek elkarlanean egin dute, Europako Kontseiluko Hizkuntza Bizien Atalak Strasbourgen koordinatzen duen proiektu pilotuaren baitan.

Bereziki eskertu nahi dugu Portfolioaren Suitzako bertsioa egin duen lan-taldea (Kantoietakoko Hezkuntza Ministroen konferentziaren proiektua), beren ekarpenengatik eta lankidetzagatik.

Orobat Günther Schneider eta Brian North eskertu nahi ditugu Portfoliorako eta Erreferentzia Markorako landu dituzten kontrol-zerrendak erabiltzen utzi baitigute, Suitzako Zientzia Ikerketarako Fundazio Nazionaleko proiektutik (Fremdsprachen können – was heisst das? Zürich, Rüegger, 2000).

Egileak: Robin Davis, Marianne Hirtzel, Brian North
© egileak Cambridge 2000

Eskerrak ondoko zerrendan dauden erakundeetako ikasle-irakasleei, Portfolioaren bertsio hau probatzen eta errazten ibili garenean eskaini dizkiguten oharrengatik eta laguntzagatik.

Academia Lacunza, Donostia,
Bell International, Cambridge, Saffron Walden, Budapest, Prague
British Council, Erroma, Italia
British Institute of Rome, Italia
British School of Trieste, Italia
Club Schools – MGB, Zurich, Suitza
Eurocentres, London
Goethe Institute
International House, Londres
Kramer &Kramer, Kroazia
Malaca Instituto, Malaga, Espainia
Octopus Language Services, Zagrev, Kroazia
QUEST, Erromania
The British School, Monza, Italia

Editoreen esker ona beste erakunde hauei ere: Bell Educational Trust, Eurocentres Fundazioa eta Cambridge-ko Unibertsitateko Local Examinations Syndicate, proiektu honi eman dioten laguntzagatik. Baita Friuli-Venezia Giulia-ko (Italia) British School-eko langileei ere, proiektuaren kudeaketan eskaini duten laguntzagatik.

“Hizkuntzen Portfolio Europarra” izena eta Pasaportearen bere logoa daramaten orrialdeak Europako Kontseiluarenak dira.



EAQUALS (European Association for Quality Language Services) elkarte pan-europarra da. Bere baitan biltzen dituen erakundeek hizkuntza-zerbitzuak ematen dituzte eta kalitate-arauak zaintzen, bai bere irakaskuntzan eta bai antolamenduan ere. Erakunde partaide bakoitza EAQUALSek ikuskatzen du hiru urtetik behin, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea EAQUALSen Jokabide-kodearekin bat datorrela bermatzeko.

www.eaquals.org

EAQUALS
Via Torrebianca 18
34132 Trieste
Italy



ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkarteak Europako hizkuntzen azterketak egiten dituzten hainbat erakunde biltzen ditu. Partaide diren erakundeek goi-mailako irizpideak zaintzen dituzte hizkuntza-azterketen arau europar bateratuak garatzeko, balioztatzeko eta hobetzeko. ALTEko partaideen azterketak berariazko erreferentzia-taulan agertzen dira.

www.alte.org

ALTE
1 Hills Road
Cambridge
CB1 2EU
UK



Council of Europe
Modern Languages Division DGIV
67075 Strasbourg Cedex
France



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredua: 06.2000 zkia.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia -Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia-San Sebastian, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskal itzulpena: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Academia Lacunza

ISBN: 84-457-2042-2

Lege-gordailua: BI-1385-04

Vitoria-Gasteiz, 2004